

## **IKASKETAK**

**Ikasketa Batzordeak** presoen ikasketak kudeatzen laguntzen du. Batzorde honek gutun bat bidali die presoei guztiei **2018-19** ikasturterako ikasketa-eskaintza azalduz.

Hauxe da harremanetarako posta elektronikoa: **ikasketak@gmail.com**  
(*Hala ere, korreo elektronikoz ezin baduzue kontaktatu, deitu Etxerat elkartera eta bertan jarriko zaituztegu harremanetan Ikasketa Batzordekoekin*)

### **1. UNIBERTSITATE IKASKETAK**

#### **1.1. Espainiako estatuan**

2003 urtetik aurrera, espainiar estatuko espetxeetan dauden presoek ezin dute EHUn ikasi. Urte hauetan, EHUn ikasteko eskubidearen aldeko hainbat gestio egin ditugun arren, orain arte ez dugu ezer lortu.

Espainiako espetxeetan preso ditugun senitarteei, beraz, UNEDen ikasteko aukera baino ez diete onartzen eta, bertan ikasteko baldintzak urtero gogortzen dituzten arren, hauxe dute aukera bakarra, bai unibertsitaterako sarbide proba, bai unibertsitate ikasketak egin ahal izateko.

**Preso dagoen ikasleak berak bideratu behar ditu espetxetik** UNEDen ikasteko gestioak, presoentzako programa berezia baita. Presoak berak eskatu beharko dio informazioa espetxeko arduradunari; gero, behar diren agiriak prestatu, aurkeztu eta matrikula **espetxetik** bideratu. Espainieraz baino ezin dute ikasi.

Espetxetik kudeaketa egiteko arazorik egonez gero, UNEDera zuzenean idatz dezakete, "Presondegietako programari dagozkion" ikasketak direla zehaztuz. Etxetik ere dei dezakegu, egoera azalduz edo informazioa eskatuz. Telefonoz egin ondoren, kudeaketa idatziz ere egitea komeni da, agiria izan dezagun.

#### **1.2. Frantziako estatuan**

Frantziako estatuan preso daudenek bi aukera dituzte unibertsitate ikasketak egiteko:

##### **1.2.1. EHUKo ikasketak**

Unibertsitatean sartzeko baldintzak betetzen dituztenek harremanetan jarri behar dute ikasketa batzordekideekin, egin nahi dituzten ikasketak zein diren adieraziz. (*Ikus 1. eranskina*)

Aurten ere, datorren ikasturterako beka lortzeko kudeaketa-lana egiten ari gara. Nahiz eta Lakuan beka ematearen aldeko jarrera azaldu diguten, gero oztopoak baino ez daude beka bideratzeko; ikaslea preso dagoen arren, **beka-araudi orokorra** aplikatzen diotelako. Aurreko ikasturteetako emaitzak ikusita, ez dugu uste ezer lortuko dugunik. Ikasketak doan izatea da xedea, eta horren alde segituko dugu lanean.

Selektibitate edo horren baliokiderik izan gabe, Unibertsitatean ikasi nahi dutenek 25 edo 45 urtetik gorakoentzako sarbide-proba egiteko aukera dute. Izan ere, sarbide-probak unibertsitate-ikasketak eta Lanbide Heziketako goi-mailako zikloak egiteko balio du.

Erdi-mailako titulurik ez dutenentzat aukera interesgarria da proba hau gainditzea, Unibertsitatean zein Lanbide Heziketan ikasteko aukera ematen baitu.

### **1.2.2. Frantziako unibertsitate ikasketak**

Unibertsitate-ikasketak espetxetik barrutik bideratu behar dira Frantzian. Gogoan izan, frantsesez ikasi nahi dutenek hizkuntza ondo jakin behar dutela. Hainbat espetxetan doako ikasketak dira.

Adibidez, Fleury-Mérogis “espetxe esperimental” izan da azken urte hauetan eta diru-laguntza jasotzeko aukera izan dute bertan dauden ikasle gutxi batzuek.

Oro har, 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba egon ohi da gainerako unibertsitateetan ere, Frantziakoetan batez ere. Informazioa espetxeko ikasketen arduradunari eskatzen zaio.

## **2. ERDI-MAILAKO IKASKETAK**

### **2.1. Lanbide Heziketako Zikloak**

Frantziar zein espainiar espetxeetan Lanbide Heziketako hainbat ziklo egiteko aukera dago (*ikus 2. eranskina*). Gasteizko Hezkuntza Sailaren ardurapean dagoen ikastetxe publikoren batean egiten dira ziklo horiek, EAEko ikastetxeren batean, beraz.

Preso dauden ikasleek Lanbide Heziketako Ziklo hauen arlo teorikoa baino ezin dute ikasi, Zikloetan dauden enpresa praktikak egiteko aukerarik ez dagoelako. **Ez dute titulurik lortuko**, baina, arlo

teorikoan gainditutakoak balio ofiziala izango du. Oraindik ezin dira ziklo guztiak euskaraz egin, baina gehienak bai.

Azken urteotan saiakera berezia egin da industriari lotuago dauden ziklo batzuk eskaini ahal izateko. Ziklo horiek ei dira, lan-merkatuari begira, "aukera" hobea eskaintzen dutenak.

2018-19 ikasturtean, matrikulaldia ikasturtea hasi baino lehenago izango da, uztailean edota irailean. Horregatik, zikloren bat ikasi nahi izanez gero, ikasketa batzordekideekin jarri harremanetan lehenbailehen.

Goi Mailako Zikloak egiteko, batxilerra edo unibertsitaterako sarbide proba gainditua eduki behar da; Erdi Mailako Zikloak egiteko, aldiz, DBH titulua.

## **2.2. Batxilerra**

**Batxilerra** egin nahi izanez gero, EAEko ikastetxeren batean egin dezakegu matrikula. Ikasketa batzordekideekin jar daitezela harremanetan, eta prozedura zehaztuko diegu.

## **3. BESTELAKO IKASKETAK**

### **3.1. Euskara Gaitasun Agiria (EGA)**

#### ***3.1.1. Espainiako espetxeetan***

Tantaka bada ere, aukera zabaldu da. Euskara azterketa egin nahi izanez gero, ikasketa batzordekideekin jar daitezela harremanetan.

#### ***3.1.2. Frantziako espetxeetan***

Datorren urterako matrikula egin nahi izanez gero, jar daitezela harremanetan ikasketa batzordekideekin 2019ko otsaila baino lehenago; baina, orain hasi nahi badute azterketa prestatzen, apunteak eskatu eta bidaliko dizkiegu.

### **3.2. Presoak bere kabuz ikasi nahi badu, era ez arautuan**

Presoari unibertsitate zein Lanbide Heziketari buruzko gaiak interesatzen bazaizkio, baina ez badu era arautuan ikasi nahi (azterketarik egin nahi ez duelako eta titulua eskuratzea interesatzen ez zaiolako), jakinarazi eta saiatuko gara bere interesari erantzun egokia ematen.

## 1 . eranskina

<b>2018-19 behin-behineko eskaintza EHU</b>
---------------------------------------------

<b>Campus</b>	<b>Ikastegia</b>	<b>Gradua</b>
<b>Araba</b>	<i>Letren Fakultatea</i>	Filologia Ingeles Ikasketak Euskal Ikasketak Historia Artearen Historia
	<i>Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola</i>	Gizarte Langintza
<b>Bizkaia</b>	<i>Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea</i>	Ekonomia Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa Finantza eta Aseguruak Marketina
	<i>Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola</i>	Negozioen Kudeaketa
	<i>Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea</i>	Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa Soziologia
	<i>Lan Harremanen Unibertsitate Eskola</i>	Lan Harreman eta Giza Baliabideak
<b>Gipuzkoa</b>	<i>Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola</i>	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
	<i>Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea</i>	Filosofia Gizarte Hezkuntza Gizarte Antropologia Pedagogia
	<i>Irakasleen Unibertsitate Eskola</i>	Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntza
	<i>Informatika Fakultatea</i>	Informatika Ingeniaritza
	<i>Psikologia Fakultatea</i>	Psikologia
	<i>Zuzenbide Fakultatea</i>	Kriminologia Zuzenbidea

1. Masterren baten bat egitea interesatuta egonez gero, jarri harremanetan batzordekideekin.

2. Unibertsitate-ikasketak egin ahal izateko, selektibitatea edo 25 urtetik gorako sarbidea gaundituta edo Goi Mailako LHko zikloaren titulua izan behar dute eskatzaileek.

3. Ikasketak aukeratutakoan, badaezpada, idatzi **zortzi gradu**, ikaslearen interesen arabera sailkatuta; hainbat ikasketetan ikasleen kopurua mugatua izanik, batez besteko notaren arabera sartzeko baitira unibertsitatara.

## 2. eranskina

### Lanbide Heziketako Zikloak (2018-19 ikasturtean)

Goi Mailako Zikloak	
Administrazio eta finantzak	Gizarteratzea
Instalazio termiko eta fluidodunak mantentzea	Animazio soziokulturala eta turistikoa
Garraio eta logistika	Ingurumen kimika
Lan arriskuen prebentzioa	Ingurumen osasuna
Haur hezkuntza	Fabrikazio mekanikoko diseinua
<a href="#">Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa</a>	Salmentak eta merkataritza-espazio kudeatzea
Sareko informatika sistemen administrazioa ( <b>Ordenagailua ezinbestekoa</b> )	Sistema elektrotekniakoak eta automatizatuak
	Nazioarteko merkataritza

Erdi Mailako Zikloak	
Administrazio Kudeaketa	<a href="#">Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta</a>
Merkataritza jarduerak	

#### **Matrikula egiteko, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:**

- Erdi Mailako Zikloetarako, DBH titulua edo antzekoa eta Goi Mailako Zikloetarako, Batxilergo titulua edo baliokidea (selektibitatea).
- NAREN zenbakia eta fotokopia, baita argazki bi ere.
- Etxeko helbidea eta telefonoa, matrikula-orrian agertzeko.
- Euskaraz ala espainieraz egin nahi duen zehaztu.

#### **Ikasketen jarraipena**

Ikasketetan laguntza errazteko, bidali, mesedez, Ikasketa Batzordearekin harremanetan egongo den etxeko pertsonaren izena, telefonoa eta emaila.

## Lanbide Heziketa Zikloi buruzko informazioa Interneten

1. <http://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/hezkuntza-lh>  
Bertan Gasteizko Hezkuntza Saileko orrira joango zara, Lanbide Heziketa.  
+ Lanbide Heziketako menua sakatu
2. Hortxe, Lanbide Arloak dituzu: Hasiera, Lanbide Arloen Zerrenda eta Eskema Orokorra.
3. **Lanbide Arloen Zerrenda** sakatu eta “familiak” edo **arloak** agertuko zaizkizu. Sakatu interesatzen zaizun. Adibide gisa:

### 3.1. Gizarte eta kultura zerbitzuak

Gizarte eta **kultur zerbitzuak arloko heziketa zikloak hauek dira:**

#### **Oinarrizko Lanbide Heziketa**

...

#### **Erdiko Maila**

- *Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta*

#### **Goiko Maila**

- *Animazio soziokulturala eta turistikoa*
- *Gizarteratzea*
- *Haur hezkuntza*

...

3.2. Eman dezagun, *Gizarteratzea* interesatzen zaizuela. Bertan hainbat informazio topatuko duzue. Batez ere, Heziketa Zikloaren **moduluak** edo irakasgaiak interesatuko zaizkizu.

3.3. Ikastetxeak **utzi**, guztiek ez baitituzte preso dauden ikasleak onartzen; zein ikastetxetan ikas daitekeen **geuk esango dizuegu** aurrerago.

4. “Kalean” dauden ikasleen kasuan, bi urtetan egiten dira zikloak; baina, batez beste, 3-4 ikasturte behar izaten dituzte “barruan” daudenek; ikasteko gogo eta baldintzen arabera, beti ere.

Arazorik izanez gero, idatzi ([ikasketak@gmail.com](mailto:ikasketak@gmail.com)) helbidera, eta guk bidaliko dizugu informazioa. Egin behar dituzun urratsak oso errazak dira, eta behar duzun guztia bertan topatuko duzulakoan gaude.

## ESTUDIOS

La Comisión de Estudios ayuda a tramitar los estudios de las personas presas. Se ha mandado ya una carta a todas ellas, explicando la oferta de estudios para el curso 2018-19.

Para contactar con la Comisión, el correo electrónico es: **ikasketak@gmail.com**

*(Si os es imposible contactar por correo electrónico, podéis llamar a ETXERAT, desde donde se os pondrá en contacto con alguna persona de esta Comisión.)*

### 1. ESTUDIOS UNIVERSITARIOS

#### 1.1. Posibilidad de estudios universitarios en el estado español

Desde el año 2003, a las personas presas en cárceles del estado español el gobierno de Madrid no les permite estudiar en la UPV. Aunque desde entonces continuamos haciendo gestiones para que puedan estudiar en la UPV, aún no lo hemos conseguido.

Por ello, la única posibilidad es estudiar en la UNED, aunque las condiciones sean cada vez más duras, tanto para hacer la prueba de acceso a la universidad como para comenzar a estudiar una carrera (grado).

Para estudiar en la UNED es la persona presa quien deberá realizar todos los trámites desde prisión, ya que este programa es específico para los Centros Penitenciarios. La alumna o alumno tiene que pedir información a la persona encargada en la cárcel. Una vez conseguida la información, también **la matrícula** se hace desde la cárcel. Tendrá que preparar y presentar la documentación exigida sobre la titulación necesaria para acceder a la universidad.

Si hubiera algún problema para realizar las gestiones desde la cárcel, conviene escribir directamente a la UNED, mencionando "**Estudios en centros penitenciarios**". También se puede llamar desde casa explicando la situación y/o pidiendo información. Pero conviene realizar las gestiones también por escrito, para que quede constancia.

#### 1.2. Posibilidad de estudios universitarios en Francia

Las personas presas en el estado francés, tienen dos posibilidades de realizar estudios universitarios.



### **1.2.1. Estudios en la UPV**

Las personas presas que cumplen las condiciones de acceso y quieren estudiar en la UPV, pueden ponerse en contacto con la Comisión de Estudios, indicando qué estudios quieren realizar. (*Ver anexo 1*)

Seguimos intentando conseguir la gratuidad para estos estudios, pero no hay nada seguro. Aunque en Gasteiz nos dijeron que sí tienen intención de darles beca, en la práctica todo son problemas, ya que aplican la Normativa General a las personas presas, y es muy difícil de cumplirla; viendo los resultados hasta hoy, casi imposible. Seguiremos intentándolo, teniendo claro que el objetivo es conseguir la gratuidad en todos los niveles de estudio.

Las personas que quieren cursar estudios universitarios, pero no tienen selectividad o título similar, pueden realizar la **Prueba para mayores de 25 ó 45 años**. Esta prueba de acceso a la universidad, posibilita también el acceso a *Ciclos de FP de Grado Superior*.

Esta prueba es muy interesante para las personas que no tienen título de grado medio, ya que así pueden acceder a los dos niveles de estudios: universitarios y de Formación Profesional.

### **1.2.2. Estudios en universidades francesas**

Las gestiones para cursar estudios han de realizarse desde la cárcel. Indicar que se necesita saber bien francés. Además, algunas universidades garantizan la gratuidad. Es interesante el ejemplo de Fleury-Mérogis, “cárcel experimental” estos últimos cursos, con unas ayudas especiales, aunque minoritarias, al estudio universitario.

En casi todas las universidades francesas ofertan pruebas para mayores. La información se solicita a la persona encargada de estudios en la cárcel.

## **2. ESTUDIOS DE ENSEÑANZAS MEDIAS**

### **2.1. Ciclos de Formación Profesional**

Hay opción de estudiar distintos Ciclos de Formación Profesional, tanto estando en el estado español como en el estado francés, en otros países habría que gestionarlo. (*Ver anexo 2*).

Se cursan en centros de la CAV, bajo la supervisión del Departamento de Educación de Gasteiz.

Las personas presas tan solo podrán cursar las asignaturas **teóricas** (módulos). Hoy por hoy, no pueden realizar las prácticas en empresas, por lo que **no obtendrán el título**. De todos modos, las asignaturas teóricas aprobadas tendrán valor oficial. No todos los Ciclos se pueden realizar en euskara, pero sí la mayoría.

En los últimos cursos se ha intentado ampliar la oferta de ciclos de línea más “industrial”, que, según parece, tienen más salida en el mercado de trabajo.

Para realizar Ciclos de Grado Superior se necesita tener superado el Bachiller, y para realizar los Ciclos de Grado Medio se necesita por lo menos el título de ESO.

Para el curso 2018-19 la mayoría de las matrículas se realizarán antes de comenzar el curso, en julio y/o septiembre. Así, quienes quieran apuntarse, que se pongan en contacto cuanto antes con alguien de la Comisión de Estudios.

## **2.2. Bachiller**

Quienes quieren hacer el **Bachiller**, pueden estudiar en centros de la CAV, o gestionarlo desde la cárcel, si están en cárceles españolas. Para estudiar en un centro de aquí contactad con la Comisión de Estudios y os indicaremos el procedimiento a seguir.

## **3. OTRAS OPCIONES**

### **3.1. EGA (Euskara Gaitasun Agiria) y/o títulos de Euskara**

#### **3.1.1. En cárceles españolas**

Si alguien quiere presentarse a algún examen de Euskara, puede ponerse en contacto con la Comisión de Estudios.

#### **3.1.2. En cárceles francesas**

Quienes tengan interés en matricularse, que se pongan en contacto con la Comisión de Estudios antes de **Febrero del 2019**. De todas formas, si quieren ir preparando el examen, que nos lo comuniquen y les pasaremos los apuntes cuanto antes.

### **3.2. Estudiar por su cuenta, de forma no reglada**

Si a alguien le interesa estudiar temas relacionados con estudios universitarios o de formación profesional, pero no de forma reglada, porque no quiere hacer exámenes o no le interesa el título, que nos lo indique e intentaremos responder a sus intereses.

## Anexo 1

<b>2018-19 Oferta provisional de estudios en la UPV/EHU</b>
-------------------------------------------------------------

<b>Campus</b>	<b>Centro</b>	<b>Grado</b>
<b>Araba</b>	Facultad de Letras	<a href="#">Estudios Ingleses</a> <a href="#">Estudios Vascos</a> <a href="#">Filología</a> <a href="#">Historia</a> <a href="#">Historia del Arte</a>
	Escuela Universitaria de Trabajo Social	Trabajo Social
<b>Bizkaia</b>	Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales	<a href="#">Economía</a> <a href="#">Finanzas y Seguros</a> <a href="#">Fiscalidad y Administración Pública</a> <a href="#">Marketing</a>
	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Bilbao	Gestión de Negocios
	Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación	Ciencia Política y Gestión Pública Sociología
	Escuela Universitaria de Relaciones Laborales	Relaciones Laborales y Recursos Humanos
<b>Gipuzkoa</b>	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales	Administración y Dirección de Empresas
	Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación	<a href="#">Antropología Social</a> <a href="#">Educación Social</a> <a href="#">Filosofía</a> <a href="#">Pedagogía</a>
	Escuela Universitaria de Magisterio	<a href="#">Educación Infantil</a> <a href="#">Educación Primaria</a>
	Facultad de Informática	Ingeniería Informática
	Facultad de Psicología	Psicología
	Facultad de Derecho	<a href="#">Criminología</a> <a href="#">Derecho</a>

1. Para intentar cursar algún Máster, ponerse en contacto con la Comisión de Estudios.

2. Para iniciar estudios universitarios, es preciso haber aprobado la selectividad, un Ciclo de FP de Grado Superior o el acceso para mayores de 25 años.

3. Para reservar la plaza, señalad **ocho** carreras, por orden de preferencia; ya que en algunos estudios hay mucha demanda y entrarán en función de la nota que tengan.

## Anexo 2

### Ciclos de Formación Profesional. Curso 2018-19

<b>Ciclos de grado superior</b>	
Administración y Finanzas	Integración social
Mantenimiento de instalaciones térmicas y de fluidos	Animación social y cultural y turística
Transporte y logística	Química y medio ambiente
Prevención de riesgos laborales	Salud y medio ambiente
Educación infantil	Diseño en fabricación mecánica
Eficiencia energética y energía solar térmica	Gestión de ventas y espacios comerciales
Administración de sistemas informáticos en red ( <i>Necesario tener ordenador</i> )	Sistemas electrotécnicos y automatizados
	Comercio internacional

<b>Ciclos de grado medio</b>	
Gestión administrativa Actividades comerciales	Atención a personas en situación de dependencia

#### **Para realizar la matrícula hace falta presentar la siguiente documentación:**

- Título de ESO o similar para Ciclos de Grado Medio y Título de Bachiller o similar para Ciclos de Grado Superior
- Número y fotocopia de DNI. Dos fotos de carnet.
- Dirección y teléfono de la familia, para la hoja de matrícula.
- Indicar si quiere estudiar en euskara o español.

\* Aparte de la matrícula, pasadnos, por favor, el nombre, teléfono y email de **la persona** que coordinará con la Comisión de Estudios.

## **Búsqueda de información sobre Ciclos de FP en Internet**

1. Entra en la hoja del Departamento de Educación de Gasteiz, escribiendo Formación Profesional Reglada - Euskadi.net o LANBIDEZ en el buscador.
2. Te aparece la LISTA DE FAMILIAS. Cada familia da entrada a una página que describe los Ciclos de FP correspondientes a dicho grupo.
3. Marca la “Familia” que te interesa y aparecen los Ciclos, de grado medio y superior que la componen.
4. Marca el Ciclo que te interesa y aparecen las características del mismo: horas, funciones, módulos o asignaturas... No todos los Centros ofertan estudios para las personas presas. El tema del **Centro** mejor lo concretas con las personas de la Comisión de Estudios, es más sencillo.
5. Los Ciclos se cursan en dos años, pero para las personas presas no hay esa exigencia, aunque sí un número de convocatorias fijo para aprobar las asignaturas.

Si tienes dificultades o quieres otro tipo de información, ponte en contacto con las personas de la Comisión de Estudios ([ikasketak@gmail.com](mailto:ikasketak@gmail.com)).

## **4. Cómo contactar con la UNED**

[www.uned.es](http://www.uned.es)

[Programa para Centros penitenciarios](#)

### **Programa de Estudios Universitarios en Centros Penitenciarios**

Avenida de Brasil nº 28  
28020 Madrid

Dirige la correspondencia al  
Apartado de Correos nº 50487  
28080 Madrid

Teléfonos: 91 398 75 37 / 91 398 75 72 Fax: 91 770 53 65

**E-mail:** [centros-penitenciarios@adm.uned.es](mailto:centros-penitenciarios@adm.uned.es)

Si tienes dificultades o quieres ampliar la información, ponte en contacto con las personas de la Comisión de Estudios ([ikasketak@gmail.com](mailto:ikasketak@gmail.com)).